



## Basaurdetan

**A**zkenengo urte honeittan **basaurdetan** jardutia ezta hain gauza arrarua gure artian. Hemen inguruan edota hemendik kanpora oñatiar mordoxkia dabil kaza-klase horretan aspalditxuan. Batetik -arrazoi desbardiñak tartian dirala- basaurdia bera ugaritu egin da paraje honeittan; eta bestetik, orain batera eta bestera ibiltzeko dagozen komenentzietan, ehiztarixai aukerak gehitu egin xate, basaurdetara lehen baiño askoz urriñago fan ahal izateko.

Egixa esan, pritzixa hori ixixa ezkutau egin zan orain dala bost-sei hamarkada gure baso eta txaratatik. Baiña hori baiño lehenago mañiña bat pasadizo eukain kontaitteko Oñatiko kazarixak basaurdia zala-eta. Zenbat bider eztozu entzun edurte batian kalerañño ailegau zan basaurdiaren historia? Olabarrietara jaitsi ei zan Kortabarri eta Amiñotik behera; haginkada batekin Zabaleneko artegiko atia zulatu eben; Artxubitik Bidaurreta aldera etorri, itsu batekin trikitx egin eta honek bastoiarekin baztertu ei eben, txakurra zalakuan; Etxaluze eta Kale Barrixa pasau eta plazatik zihar Santa Anako zelaixan sartu zan; ordurako zaurittuta eguen itxuria, eta larrixian hango burdiñazko atia apurtu eta iges egin eben; San Juan kaletik **Belaxara** aldera jo ondoren, han akabo ei euen.

Baiña gaurko fotografixako basaurdia gerotxuagokua da eta Udana aldian, **Zalduziar** inguruan, harrapo euen hemen agerketan diran kazarixok. Etzan haundixenetakua, baiña oso txikiña be ez: hirurogei bat kilo-edo eukiko zittuan. Hona harrapaitzailion izenak ezkerretik eskumara:

Joxe **Arregi**, *Kale Zaharrekoa*; Juan Migel **Guridi**, Murgiko *Estenagakua*, txakurrekin batera ojeadore moduan jarduteko makillatzarrekin; Natalio **Maiztegi**, *Kale Barrikua*; Hipolito **Zabaleta**, Olabarrietako *Zabalena Haundikua*; Mariano **Lazkanoiturburu**, Olabarrietako *Juanpuenekua*; eta Joxe Migel **Lazkanoiturburu**, aurrekuaren anaia eta *Juanpuenekua* hau be.

Kaletarrak txokolateruak ziran bixak eta oso ezagunak, **Onena** eta **Maiztegi** txokolate-fabriken jabiak. Bestiak, berriz, baserriarrak, baiña artzain, ikazkin eta basozain lanetan be ibiltten ziranak. Eta ehiztari amorrutuak danak be. Fotografixia 1927-1928 ingurukua izango da seguru asko. Joxe Zabaleta **Xabalok** esan doskunez, bere aittaren eta Mariano Lazkanoiturbururen eskopetak 1926ko fetxia dakoi. Izan be, urte horretan erregalau osten bana Bittor **Sarasketa** armagin eibartarrak, Marianori aurreko eskopetia basaurde batek aguarekin hondatu otzalako. Ondotxo ezaguketan dau Joxek eskopetiori, gero urte askuan berak ebalu eben-eta. Orain Azpeittiko illoba batek ei dako.

J. E.

Fotografixiaren barri Juanpueneko Pepita Lazkanoiturbururen bittartez izan dogu, eta egun eta leku berian ataratako oso antzeko beste bat Mari Tere Arregik bialdu dosku Donostiatic. Informaziñua, berriz, Pepita bera, Felix Arregi, Joxe Zabaleta *Xabalo*, Joxe Luis Betelu eta Anton Azpiazuairengandik jaso dogu. Milla esker danoil!